

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko irailaren 6a / 596. zenbakia



Abuztuan ere lanean

Arrasaten hainbat obra egin dituzte
abuztuko lasaitasuna aprobetxatuz

ORAIN ETA HEMEN: UDALTZAINEN GAUEKO TXANDA, ABIAN/9 • KULTURA: SAN ISIDRO ELKARTEAK, 50 URTE/14

AZALA: XABIER URZELAI

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. ☎ 670 52 19 34

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kale, 22-3. eskuma ☎ 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ☎ 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kale 54, behea eskuma ☎ 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

KALEINKESTA/ Azkenaldiko eguraldi xelebric ikusitte, eguraldixe aldaketan dabillega uste dozu?



IÑAKI IRIONDO
Langillie



AMAIA URTZAIN
Ikaslie




DORLETA BEITIA
Langillie



BELÍ VIÑUELA
Etxekoandrie



JULIA DONOSO
Jubilaue



JAVI MARTÍN
Langillie

Nik uste dot baietz, eguraldixe aldaketan dabillega. Eta uste dot gizakixaren kulpie dala neurri baten. Neure ustez, apur bat gehixago zaindu biherko geuke ingurugirue.

Abuztue arrarue izen da leku danetan, eta planetie beroketan dabillega be uste dot. Gizakixok badaukogu zerikusixe eta zerbait egin biherko geuke, baiñe oso gatxa da ze egin esatie.


Neure ustez, batzuetan aldaketie da lurra beroketan juen dalako, eta beste batzuetan holan toketan dalako, beste barik. Izen be, eguraldixe aldatuz juen da azken urtiotan.

Uste dot aldaketan dabillega, eta gizakixaren erruz, gainera. Hortan, zerbait egin biherko geuke, duda barik. Zerbaitte kale egitten dauela argi dago, eta hori izen leike.

Duda barik, egualdixe aldaketan dabil. Abuztuen ikusi dogu hori. Eta kulpie geurie da, gizakixona. Eta guri toketan jaku hori konponketako zerbait egittie. Iku-si biher ze...

Planetie beroketan dabillega, seguru, eta gizakixaren kulpie dala, duda barik, kalamidade hutsek gare. Argi dago, era berien, zerbait egin biher dogule, egitten gabitzena baiño askoz gehixago.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK KULTURA ETXKO LANAK, GELDI Hainbat gaztek jakinarazi digute ospitale zaharreko gaztetxea uztailean itxi eta ez dituztela oraindik lanak hasi, hesi bat bakarrik jarri dutela. Kexu agertu dira bitartean gaztetxea zabalik egon zitekeelako. Bestalde, Ferixalekuko bizilagun batzuk ere kexu agertu dira hesi horrek eta kale bereko etxe baten lan erraldoiek aparkaleku barik utzi dituztelako.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /9	TXUTXUMUTXUAK /10	KIROLA /12
Batasunaren ilegalizazioa Garzon epaileak Batasuna legez kanpo uzteak eragina izan du baita Arrasaten ere.	Uribarriko jaiak iruditan Abuztuan Uribarri auzoan ospatutako San Bartolome jaiak iruditan ekarri ditugu.	Kirol eskaintza berria AUKEAK kirol eskaintza berriak antolatu ditu. Irailean hasiko dira, eta izango da non aukeratu.

ASTEKODATUA

24

UDALTZAIN DABILTZA HERRIKO KALEETAN LANEAN

Joan den astelehena ezker, 24 udaltzain dabilta herriko kaleetan lanean. Udaltzainak hogei-ta lau orduko zerbitzua ematen dabilta asteen zazpi egunez, zerbitzu osoa, hortaz.

IRAKURLEAREN TXOKOA

“ Gutun hau uztailaren 24an ARRASATE PRESSen Txaloak eta Txistuak sailean agertu zen argazkiaren harira dator. Argazkian, San Andres auzoan oinezkoentzako espaloie gainean egindako “aparkaleku” berriak goraiatzaren ziren. Hobekuntzak omen ziren eta, gainera, beste batzuk bidean omen datoz. Ez, mesedez! Horrelako astakeria gehiagorik ez! Azken batean, aparkalekuak omen dira... Alderantziko munduan edo... Egin ditzatela aparkalekuak zure logelan, mesedez, eta ez herritarrok lasai oinez ibiltzeko dugun toki bakarren gainean. www.tonterias.com webgunean zintzilikatzeko moduko argazkia da. Lotsagarria Arrasateko herritarrontzat. Baina badakigu, Arrasate is diferent! Eta kotxeak oinezkoen gainetik... Negargarria”
MIKEL ARRUPE

HERRITARREN BERBAK/ Eneko Barberena



Abokatuak eta igeltseroak

Zuzenbidea ikasi behar nuela erabaki nuenean, lagun batek honakoa esan zidan: “Ondo egingo duk, abokatuak behar ditiagu herri honetan”. Nik irribarre egin nuen. 20.000 atxilotu 25 urtean, 600 preso politiko, “makrosumarioak”... aspertzeko denborarik ez antza.
Baina bueltak ematen aritu naiz eta nire zalantzak ditut horri guztiorri buruz. Abokatuak espainiar eta frantziar legeen arabera jokatu behar dute, eta kasu bakoitzean, errugabetasuna frogatu behar dute. Euskaldunok, behintzat, errudunak garelako kontrakoa frogatu arte. Futboleko esamolde bat erabilita, kanpogan jokatu behar izaten da erositako arbitro bateaz lagun delarik.
Madrileko auzitegiatar bueltaka ibili beharra, euskara ezin erabiltzea lanean, uneoro injustiziari aurre egin behar izatea... gero eta erakar-garritasun txikiagoa dauka

lanbide horrek.
Ezin gara ibili uneoro zirrikitu legalei begira, eraso juridikoei irtenbide bat aurkitu behar zaien bakoitzean. “LOU”-aren aurrean, kalitate legearen aurrean, alderdi politikoen legearen aurrean edo bestelakoan aurrean Eusko Jaurlaritzako hainbat kide lege alternatiboan aukera plazaratu dute Euskal Autonomia Erkidegorako. Hau da, espainiar legeen ordez beste arau propio batzuk sortzea, baina estatutuak dakartzan mugekin. Nire ustez, hori ez da bide aproposena, nazio ikuspuntutik erantzun partziala izateaz gain ez dudalako uste PPK lege alternatiboan kontua onartuko duenik.
Eraiki egin behar dugu. Estatutua agortua dagoela onartu behar du behingoz Eusko Jaurlaritzak eta oinarri sendoak jarri behar dira marko berriarentzat. Horretarako igeltseroak behar ditugu, ez abokatuak.

“Estatutua agortuta dagoela onartzen dute eta oinarri sendoak jarri behar dira marko berriarentzat”

Arrasate
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Boinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Berebizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 6**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ZAPATUA, 7**
Español, Araba etorb. 17. 943 79 18 65
- DOMEKA, 8**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 9**
Corcuera, Aranbarri 1. 943 79 22 26
- MARTITZENA, 10**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 11**
Español, Araba etorb. 17. 943 79 18 65
- EGUENA, 12**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
Santa Marinako eliza
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | |

OHARRAK

ALZHEIMERRARI ARRETA
Hirugarren Adinerako Institutuak eta INEMek alzheimerri duten gaixoei arreta berezia eskaintzeko ikastaroa antolatuko dute Arrasaten. Ikastaroa doan izango da, irailaren 16tik abenduaren 4a arte, goizez, eta guztira 249 ordu izango dira. INEMen izena emandako interesatuek eta langabeek irailaren 9a baino lehen eman beharko dute izena. Horrez gain, ikastaroarekin batera, osasun eta giza alorreko zentroetan prestakuntza praktikak, titulu ofiziala eta lan-poltsak eskaintzen dituzte. Informazio gehiago 943 79 17 45, 943 77 16 99 edo 943 77 17 15 telefonoetan.

NEGOZIO IDEIA BERRIAK
Debagoieneko Mankomunitateak langabeek euren negozio ideien bideragarritasunaren plana egiteko kontratazioa zabaldu du. Debagoienean errolatuta dauden langabeak izan beharko dira. Mankomunitateak zera eskaintzen die langabeei: hamar lan-kontratu, tutoretza eta azpiegiturak. Eskabideak aurkezteko epea irailaren 13an bukatuko da, eta interesatuek Mankomunitatera edo ibarreko udal enplegu zerbitzuetara jo beharko dute.

AEDren AGENDA

ZAHARBERRIREN DEIA
Dagoeneko Zaharberrikoek zabaldu dute izena emateko epea.

AED, GAZTE ERAGILE BILA
Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak gazte eragile bat kontratatu gura du egun erdiko lan-jarduna egiteko. Interesatuok, bidali curriculumak AEDra irailaren 13a baino lehen.


URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inárrra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

HIES Ekimenaren bazkide kanpaina

HIES Ekimena taldeko partaideek zera eman zuten aditzera prentsaurrekoan: irakasleei, gurasoei eta gazteei zuzendutako sexuaren gaineko ikastaroak antolatuko zituztela. Horrez gainera, taldeak diru-sarrera finkoak lortzeko bazkide kanpaina abian jarri zuen.



BERTAKO BERRIAK/ Juan Martin Elexpuru

"Sukurutza"



Izua, beldurra.
-Ilgo dabela amenazau dabe. Ori da sukurutza sartu dotsena.

HAUGIROA!

MINIMOA Astelehena, 2	12 °C
MAXIMOA Astelehena, 2	28 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	21,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 28	19 °C	16 °C	21,2 l/m ²
Eguena, 29	21 °C	15 °C	0,2 l/m ²
Egubakoitza, 30	26 °C	16 °C	- l/m ²
Zapatua, 31	21 °C	17 °C	- l/m ²
Domeka, 1	24 °C	15 °C	- l/m ²
Astelehena, 2	28 °C	12 °C	- l/m ²
Martitzena, 3	24 °C	14 °C	0,2 l/m ²

Bergerako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Hasi da Arrasate Irratia zuzeneko emanaldiak egiten

Hilaren 2an hasi zituen Arrasate Irratiak zuzeneko emanaldiak. Oporren ostean, hortaz, herriko irratia berriro ere entzungai.

UDAKO PROGRAMAZIOA

Urrira arte udako programazioari eutsiko diogu herriko irratian. Goizeko bederatzietan hasiko dira emanaldiak eta eguerdira arte iraungo dute. Arratsaldean, berriz, goizeko saioak errepikatuko ditugu.

Gainerako orduetan musika izango duzue entzungai.

ABUZTUARI GAINBEGIRATUA

Irailaren hasieran abuztuak utzitako albisteak izan ditugu hizpide. Herrian turismorik izan ote den galdetu dugu. Horren gainean egindako elkarrizketak entzungai izango dira berriro zapatuan eta domekan, 11:00etatik aurrera. Asteburuko errepikapenetan elkarrizketa gehiago entzuteko aukera

izango duzue. Mikel Lagunilla arrasatearra irratian izan da. Turkiara egin duen bidaia kontatzen. Mari Juana Ezkurra ere elkarrizketatu dugu; 88 urte ditu Aretxabaletan jaiotako emakumeak, eta domekan saria eman zioten Legazpiko Artzai Egunean, bizi osoa artzaintzan eman duelako. Eta Batasunaren ilegalizazioa dela eta, Xabier Zubizarreta alkateak irratian esandakoak eskainiko dizkizuegu berriro.

ASTEABIHITZETAN

Ezbeharra Gesalibarko ospitalean

Martitzen goizean, San Juan de Dios ospitaleko gaixo bat leihotik erori zen. Ustez, bere buruaz beste egiten ahalegin-
du zen, eta zauri larriekin eraman zuten Arrasateko eskualde ospitalera. Psikiatrikoko gaixoa lau bat metrotik erori zen, eta kolpearen ondorioz bihotzekoak eman zion.

Gurutze Gorriko eta Ertzaintzako kideak gertaeren lekura iritsi zirenean suspertu egin zuten gaixoa, eta berehala Arrasateko Eskualde ospitalera eraman zuten.

Unibertsitateen arteko lankidetzak

Mondragón Unibertsitateak lankidetzak protokoloa sinatu du Europako hainbat unibertsitateekin. Ikerketa eta lankidetzak bultzatuko duen sarea osatuko dute.

Parisko Sorbonarekin, Torinoko Unibertsitatearekin, Alacantekoarekin, Sevillakoarekin eta Valentziako Unibertsitatearekin sinatu dute hitzarmena bai Mondragón Unibertsitateak, eta baita Deustukoak ere.

Horrez gain, Garaia, MIK eta Socintec erakundeek ere sinatu dute lankidetzak ituna. Gizarte kapitalaren inguruko ikerketa eta lankidetzak bultzatuko duen sarea osatuko dute zazpi unibertsitateek.

Ur-etetea egubakoitzean

Egubakoitz goizean, Makatzena eta Jose Luis Iñarra kaleko goiko etxeak ur barik geratu ziren. Matxura baten ondorioz geratu ziren kale horietako etxeak ur barik.

Zona horietako bizilagunek buruhauste handiak izan dituzte, kolektoreen lanagatik errepideak moztuta egon direlako, eta egubakoitzean, uraren arazoa gehitu zitzaie. Udaleko langileei abisua eman, eta berehala ekin zioten arazoari konponbidea emateko lanean. Eguerdirako arazoa konponduta zegoen.



Udan ume mordoak jaio da

Aurtengo udan lan handia izan dute Arrasateko eskualde ospitaleko emaginek; izan ere, ekainetik abuztura bitartean 138 ume jaio dira. Aurreko urteetako datuekin alderatuta, erditzeek nabarmen egin dute gora. Jaiotze kopuru handiena abuztuko oporretan eta gabonetan izaten da.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Ikasturtea 'ezinhobeto' hasi

Abuztuko geldiuena gainditu eta herria martxan dago berriro. Oporren amaierarekin ia batera, Garzon epaileak eta finean Espainiako gobernuak Batasuna legez kanpo utzi dute. Espainiako Estatuak Turkia eta antzeko sasi-demokrazien parean jarri da. Milaka hautesle, ordezkaturiko dituen alderdi politiko barik geldituko dira, eta

Batasunako partaideak klandestinitatera bultzatu dituzte.

Euskal Herriko arazo handienaren konponbidea urrun ikusten bagenuen, are urrunago ikusten dugu orain. Ezker abertzalearen bide politikoa deuseztu dute. Madrilen diotena diotela, euskaldun gehienek badakite ilegalizazioaren erruz denak txarrera egingo duela. Are

gehiago, Batasunako egoitzak ixteko ertzantza bidali izanak, ezker abertzalearen eta EAJren arteko tirabirak areagotu egingo ditu. Bestalde, EAEko gobernuak orain arte erakutsi duen jarrerak ez du askorik lagundu.

Garzonek eta EAEko Barne Sailak ilegalizazioaren aurkako manifestazioak galerazi berri dituzte. Madrilkoak gura dutena lortzekotan daude: Lizarra-Garaziren antzeko beste ekimenik ez sortzea lortzekotan daude.

ASTEKO IRUDIA



XABIER URZELAI

ARRASATEKO KALEAK BERRIRO ERE JENDEZ BETETA

Dagoeneko atzean utzi dugu abuztua, eta kanpoan izan diren mondragoetarrei etxera bueltatzeko ordua ere aspaldi iritsi zitzaie. Kalera begiradaxoa botaz gero, erraz nabaritzen da Arrasateko betiko martxari heldu diola eta beste urtebete pasatu beharko dela berriro ere herriko kaleak hutsik ikus

ditzagun. Edozelan ere, herrian geratu direnek zera esan dute: "Oraingo abuztuak ez dira lehen-goak modukoak. Lehen, inor ere ez zen herrian gertzen, baina orain, herria ez da horren hutsik egoten. Diru arazorik ez dago, hortaz, oporrak hobeto banatuta daudela izango da arrazoia".

Industrialdea F-0-4
Tfnoa.: 791844
Faxa: 792941
ARETXABAETA


UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Poliki-poliki, Arrasateko udalerrri osoa zeharkatuko duen pasealekua egiten ari dira.

XABI URZELAI

Arrasate batuko duen pasealekuko lanek aurrera egin dute abuztuan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Abuztuan, Erguin eta Monterron lotzen dituen pasealekuko lanek aurrera jarraitu dute. Bizkaia etorbideetik igaroko den pasabidea bukatzeko dago, eta hainbat arazo konpondu dituzte bitartean.

Monterron eta Erguin elkarlotzen dituen pasealekuko azken xehetasunekin amaitzeko asmoz, lanean ibili dira abuztuan. Lan-tegi baten ari dira eraikitzen Medina aroztegia eta Villa Tranquilla artean jarriko duten zubi aurrefabrikatua. Behin amaituta, bere tokian jarriko dute pasabidea, eta horrela, lanak amaituztat emango dituzte.

Ia ehun metroan %8ko aldapa egongo zela-eta polemika sortu zen, baina enpresa eraikitzaileak bere horretan utzi du aldapa, zenbait lekutan salbu.

ZAILTASUNAK

Zailtasun teknikoek ere egin behar izan diete aurre langileek. Esate baterako, Aramaio eta Meatzerrrekako ibaien bailarak batzen diren lekuan egindako lanak. Hango orografia nahasia dela eta, Meatzerrrekako ibarreko eskuma aldeko horman arroka zulatu behar izan zuten langileek.

Zailtasun tekniko horiek eta 1.114.000 euroko (185,5 milioi peze-ta) aurrekontuari eutsi gura izanak halabeharrezko bihurtzen dute maldak egotea.

Bestalde, Monterrondik irte-tan da Erguineraino doan oinez-koendako pasealekuaren ibilbide zati berria. Bidean, atsedean hartzeko lekuak aurki ditzake handik dabilenak. Atsedenleku horietan bankuak eta zuhaitzak egongo dira, leku zabalenean, Zarugalde eta Bizkaia etorbidearen artean, eta zortzi metro zabal izango da.

Jakina denez, pasealeku osoak Arrasate alderik alde batuko du, Musakolako kirodegitik hasi eta Erguineraino doan bideari esker.

Edozelan ere, proiektua guztiz betetzeko, Bizkaia etorbidearen gaineko pasabide aurrefabrikatua bere tokian jarri arte itxaron beharko da.



Musakolako kanpo igerilekua, inoiz baino bakartiago

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Musakolako kirolegiak azken 25 urteotako udarik txarrena bizi izan du, eta arrazoi nagusia eguraldi kaxkarra izan da. Izan ere, kanpoko igerilekuetara jende gutxi gerturatu da eguzkitara.

Ekainean hasi eta uda osoan iraun duen eguraldiaren ondorioz, Musakolako kirolegiko kanpoko igerilekuek 25 urtean izaniko denboraldirik txarrena bizi izan dute.

1977an ireki zituzten lehen aldiz kanpoko igerilekuetako atak, eta, duda barik, aurtengoa izan da urterik kaxkarrena.

Igeriketari ibiltzen diren per-

tsona leialak eta sendagilearen aginduz gerturatutako pertsoez gain, jende gutxi azaldu da aurtengo udan Zigorrolara.

1997AN, ANTZERA

Kirolegiko langileek 1997ko uztailea gogoratzen dute, bereziki, orduan, bost egunetan bakarrik egin zuen-eta eguraldi ona. Hala ere, aurtengoa modukorik ez dutela ikusi azaldu dute, ekainean hasitako eguraldiak ez du eta hobera egin orain arte. Hori dela eta, igerileku olinpikoak dituen 1.250 metro koadroetara ia inor ez gerturatzeak 25 urteotan kirolegiak jasaniko denboraldirik txarrena ekarri du, eta arrazoi nagusia giro txarra izan da.



Zabaletako zubi inguruan, zebra-bidea

Zigorrolako bizilagun bat hil zen abuztuaren 2an Zabaleta zubia-
ren parean. Hogeita lau ordu igaro ez zirela, Diputazioak maia-
tzean egin beharreko zebra-bidea margotzera bidali zituen lan-
gile batzuk. Bizilagunen esanetan, zuba kendu zen momen-
tutik bertatik arriskutsu bihurtu da Musakola eta Kataideko
poligono arteko ibilbidea egitea. /Z.V.M

Zortzi hilabete Mozambique aldean garapenerako proiektu batekin

Z.V.M.

Hogeita zortzi urteko Beñat Artza-dun oreretarrak Ingeniaritza ikasi zuen Arrasaten, eta Fagor Automationen lanean ibili ondoren, Mozambique aldera joan zen duela zortzi hilabete. Mundukide Fundazioaren bidez joan zen hara, kooperatiba inguruko gobernuz kanpoko erakundea batekin Afrikako herrialde horretan garapenerako proiektu bat aurrera ateratzeko asmoz.

Beñaten lana herrialde hartako garapen sozio-ekonomikoaren alde egitea da. Horretarako, hainbat gai jorratzen dituzte: heziketa (eskolak birgaitzea), osasuna (lanpostuak sortu eta lanbide heziketa), azpiegiturak (errepideak konpontzea), eta abar.

Beñaten lana goizeko bostetan hasten da. 06:30ean, *makua*, hango hizkuntza, ikastera joaten da. Ondorengo betekizunak desberdinak izaten dira: administrazioarekin euren lana koordina-

tzea, xaboiaren ekoizpenerako probetan laguntzea... Eta horrela, gaua iritsi arte. Beñaten esanetan, Marrupa aldera joateko arrazoietako bat hango egoerarekin pozik ez egotea izan da. Gainera, bete beharreko lana ondo eginez gero, urte batzuk barru, herrialde hartako biztanleei emandako laguntzarekin harro egoteko arrazoiak izango dituztela uste du oreretarrak. Ingeniariaren egonaldia bi urtekoa izango da, lana burutzeko beste denbora.

LANAK / Herria hankaz gora abuztuan

Abuztuan hainbat lan egin dituzte Arrasaten, eta oraindik asko dago egiteko

XABIER URZELAI

Arrasateko kaleetan kolektoreko lanek aurrera egin dute abuztuan. Hilabete aproposa izan da hainbat zonatako lanak aurrera eramateko, abuztuan normalean baino jende gutxiago izaten da-eta herrian. Horrez gainera, beste lan batzuk ere egin dituzte.

Kolektore lanak direla-eta Arrasateko hainbat lekutan lanak egiten dabilta. Abuztuan Arrasate pasealekuari tokatu zaio hodi berriak jartzeko egin behar dituzten lanak jasatea. Udala plaza eta Gipuzkoako Foruen plaza itxita egon dira, eta zirkulazioa Loramendi kaletik bideratu dute. Loramendi kalea noranzko bakarrean gurutzatu daiteke, baina abuztuan bi noranzkoetan erabili ahal izan dute, eta, horrez gainera, debekatuta egon da kale hartan autoak aparkatzea.


Arrasate pasealekuo lanak abuztuaren 5ean hasi zituzten, eta hilaren 24an amaitu. Inguru hartako lanak ezin ziren luzatu; izan ere, lantegiak atek zabaltzerakoan Loramendi kaleko desbideraketak ez zen nahikoa izango zirkulazio guztia bideratzeko. Udala plazako lanak amaitu dituzte dagoeneko, Munarren oraindik lanean dabilta, eta Arima Zuri eta Eskola Profesional arteko kalea ere itxita dago. Horrez gainera, baliatzen dituzten egunotan Erguin kalean ere zirkulazioa moztea. Oraindik ez dago argi Erguin kalea zentratu egunez egongo den moztuta, baina udaltzainburuaren esanetan, gehienez bi egunez egongo da moztuta.

BESTE AUZO BATZUETAN ERE LANEAN

Buruhauste handien sortu dituen ingurua orain aipatutakoa izan da, baina Arrasateko beste hainbat lekutan ere lanean dabilta.

Santa Teresan, Obenerrekan eta Makatzenan ere ez da giro. Obenerrekara autoz joan daiteke, baina kalea asfaltatu barik dago. Makatzena auzora igotzeko Obenerrekatik joatea ez da posible. Abuztuko azken astean Makatzenako bizilagunek sekulako itzulia egin behar izan dute; Meatzerreka auzotik egin behar izan dute etxerako joan-etorria, kanposantutik igaroz. Orain, posible da Jose Luis Iñarra kaletik joatea, hau da, Altamiratik joatea. Hori gutxi izango balitz, Makatzena auzoko atzeko aldean aparkalekuak egiten dabilta.

Lanak ez dira hortxe amaitzen. Eroskiren aurreko aldean ere lanean dabilta, eta kolektoreko lanak zubi berriaren eraikuntzarekin bat egin dute. Hori dela eta, azken hilabeteotan Eroskik hainbat aparkaleku galdu ditu, eta hipermerkataruko sarrera eta irteera ez dira



Abuztua hainbat lan egiteko aprobetxatu dute, eta buruhauste handienak kolektorearen lanak sortu ditu.

XABIER URZELAI

Udala plazako lanak amaitu dituzte dagoeneko, baina inguruan hainbat kale moztuta daude

batere txukun egon. Inguru hartan kolektoreko lanak ia amaituta daude, baina zubi berriko lanak oraindik luze joko dute.

Datozen egunotan, egun baterako edo birako Erguin kalea zirkulaziorako itxita egongo da

BESTE LAN BATZUK

Abuztu hasieran Monterron eta Erguin auzoa elkartuko dituen pasealekuan lanean ibili dira.

Arrasateko mutur biak batuko dituen pasealekuko lanak amaitzeko zubia falta da

Lanak ia amaituta daude, Zargaldeko eskailerak amaitzeko gutxi falta da, baina oraindik ere lanak amaitzeko gauza bat dago

egiteko: Kanpanzarko errepide gainean egongo den zubia jartzea, hain zuzen. Pasealekuari dagokionez, badirudi askok nahiko luketena baino malda handiagoa daukala, baina inguru hartan harkaitza da nagusi, eta aurrekontua mugatua da. Horrenbestez, ez da batere erraza malda txikitzea.

Pasealekuko lanak amaitzen direnean, Arrasateko mutur biak elkartuko dituen pasealekuak izango da herrian. Hasi Erguinen, eta Zigorrolara arte.

Lanak egiteko, zirkulazioari begira

Abuztuan, aste batzuetan, behintzat, herriko lantoki gehienak itxita egon dira. Urte osoan ez da une aproposorik egongo Arrasateko hainbat kale zulatu eta kolektoreko hodiak sartzeko. Argi dago, hortaz, joan den hilabetean, hainbat langilek erlojupeko lana egin behar izan dutela.

Kolektoreko lanak Arrasate pasealekura iritsi dira abuztuan, eta herrian leku gutxi egongo dira inguru hori bezain istilutsuak direnak. Abuztuaren 5ean, Udala plaza eta Gipuzkoako Foruen plaza artean bidea itxi egin zuten, eta hilaren 24an zabaldu zuten, eguerdiko hamabietan, hain justu. Egun horietan Lora-

mendiko kalea erabili dute gidariak hara eta hona ibiltzeko, eta abuztuko azken asterako egoera normaltasunera bueltatu da.

Inguru horretan arazo gehien sortuko lituzketen lanak amaitu dituzte dagoeneko, baina Munarreko eta Eskola Profesional aurreko kaleek itxita jarraitzen dute oraindik. Hasiera baten, Munarrekoak ez du buruhauste handirik sortuko, baina Eskola Profesionalean eskolak hasten direnean, gauzak bestelakoak izan daitezke.

Dagoeneko badakigu herri honetan aparkalekuak kentzeak zer dakarren,

eta zona hori ez da batere goxoa izaten. Udaltzaingoaren arabera, eskolak hasten direnean, nahiz eta kaleak itxita egon, ez litzateke inongo arazorik egon beharko. Mondragon Unibertsitateak eskura du Uribe auzoaren atzeko aldean dagoen aparkalekuak, Trefasako aparkalekuak, alegia, baina ikasleek ez dituzte autoak hara eramaten. Goizetan, Arrasate pasealekuko, Uribe auzoko eta Erguin auzoko bizilagunak lanera joaten direnean hutsik uzten dituzten aparkalekuak ikasleek betetzen dituzte, eta orain, aparkaleku gutxiago daude, hortaz...

ELKARRIZKETA

NAGORE ZUBIZARRETA/AED-KO IDAZKARI-TEKNIKARIA

“Debagoienezan erreferentzia moduan hartzeko elkarteak dela uste dut”

UBANE MADERA

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak idazkari-tekniaria estreinatuko du aurtengo ikasturtean. Nagore Zubizarreta da haren izena eta Aretxabaletatik etorri da Ander Elortondok utzitako lekua betetzera:

Egiguzu zeure buruaren aurkezpen txo bat...

Nagore Zubizarreta naiz, aretxabaletarra, 27 urte ditut eta urte eta erdi lanean izan naiz Eskola Politeknikoko eresketa sailean.

Zelatan etorri zara AEDra? Lehenagotik ezaguna zenuen?

Ez nuen askorik ezagutzen, baina aretxabaletarra izanda, Loramendi Euskara Elkarteak ezagutzen dut. AEDrako Langaitik deitu zidaten, lan interesgarria iruditu zitzaidan, eta...

Zela ikusten duzu zuk egin beharrekoa?

Lan moduan egin behar dudana oso interesgarria pentsatu zait. Diru kontuak eta hori guzti hori nik egindako ikasketekin lotuta dago. Enpresa Zientzietan lizentziatura dut. Bestalde, lan moduan euskararen alde egin behar diren ekintzak, helburuak eta hori guztia ere interesgarria iruditzen zait; hortaz, ilusioarekin orain arte egin diren ekintzak aurrera eramatea espero dut, baina sortzen diren berriak ere.

AED bera zela ikusten duzu?

Debagoienezan erreferentzia moduan hartzeko elkarteak dela uste dut. Elkarte bakoitzak bere ekintzak izango ditu, baina uste dut AEDk zeresan handia duela.

Baduzu helbururik?

UBANE MADERA

“Hasieran, ikasteko gauza asko daukat, eta ematen hasi aurretik jasotzeko asko”

Gaur, laneko lehenengo eguna izanda, nire lana apur bat antolatu, ikasiz joan... Hasieran, ikasteko gauza asko daukat, eta ematen hasi aurretik jasotzeko asko.

Zer esango zenieke herri-

“Herriarrei esango nieke badakitela AED non dagoen eta euskararekin aurrera segitzeko”

tarrei?

Badakitela AED non dagoen eta euskararen alde edozein ekintzatan parte hartu edo ekintzaren bat egin gura badute, gurekin harremanetan jartzeko; eta euskararekin aurrera segitzeko.

Beilatokia inauguratuko dute Arrasaten irailean

UBANE MADERA

Irairean erdialdetik aurrera Arrasatek beilatoki berria izango du. Udalak emango duen zerbitzua izango da, bailaran lehena. Antzerako gainerako zerbitzuekin batera, San Kristobal hilerrian dago.

Orain dela urte eta erdi inguru hasi zen Arrasateko Udala beilatokia egin guran. Arrasaten horrelako zerbitzu publikorik ez zegoela-eta, jendearen beharra asetzeko egitea pentsatu zuten. Udaleko Zerbitzu Saileko buruaren, Jose Mari Urizar Ametzu-ren, esanetan, “Arrasaten urtean ehun eta piku lagun hiltzen dira, gutxi gorabehera. Ospitalean hiltzen baziren, lehen, bazuten beilatoki antzeko zerbitzu baina ez ondo prestatuta. Eta berriz, gorpua etxean edukitzea ere ez da guztiz egokia. Hortaz, pentsatu genuen beilatokia eginez gero, hildaren familiarendako abantaila izango zela gorpua hona ekartzea. Hemen gorpua hozkailuetan sartuta utzi eta hor egongo da, ondo mantenduta, inorendako ardura barik. Horrez gain, ondoan lagunak hartzeko beste gela bat ere egokitu dugu, ahalik eta zerbitzu osoena emateko”.

DENONDAKO ESKURAGARRI

Gainera, Udalak emango duen zerbitzua izanda, guztiondako eskuragarri izango dela ere nabarmendu du Jose Mari Urizarrek: “60 bat euro kostatuko da. Udal zerbitzua izatea gura genuen; horrela, diru gutxien duen familiek ere erabiltzeko aukera izango dute. Eta uste dut Arrasate inguruan bizi garen gehienok ordaindu ahal izango dugula aipatutako kopurua; beste leku batzuetan hiruzpalau bider gehiago kostatzen da”.

BAILARAN LEHENA

Gure eskualdean dagoen lehenengo beilatokia da. Hortaz, arrasatearrez gain, bailaran interesa duen edozeinek erabili ahal izango du zerbitzua, baita gaez ere: “Orain, Udaltzaingoa gaueko txanda betetzen hasi denez, posible izango da gaez ere gorpua beilatokira eramatea”.

INAUGURAZIOA

Hilerrira sartu eta ezkerrean dagoen eraikina erabili dute beilatokia egiteko. Lanak oraingo astean bukatzea espero du Udalak. Inaugurazioa, berriz, hilaren 16an egingo dute (astelehena). Hortik aurrera abian izango da zerbitzu berria.



UBANE MADERA

Lanak bukatu, eta hilaren 16an inauguratuko dute beilatokia.



Arantzazurako erromesaldia, gertu

Dagoeneko guztia gertu dago hilaren 15ean Arantzazura erromesaldian joateko. Arrasatearrendako bi aukera egongo dira: oinez edo autobusez joatea. Oinez gura dutenek 06:30ean dute irteera Sorkunde plazatik. Autobusez doazenek, berriz, 09:30ean. Bidaia Viajes Ecuador agentziak antolatu du; hortaz, informazio gehiago gura duenak hara jo beharko du.

Aurten, gainera, arrasatearrek erromesaldia aprobetxatuko dute herriko parrokoa agurtzeko. /U.M

LABUR

2002-2003. urteko gida prestatzen hasi da Goiena

Urtero moduan, Goiena Kooperatiba hasi da 2002-2003. urteko gida prestatzen. Samin Larrañaga arrasatearra izango da arduraduna. Gatzagan hasi eta Arrasaterainoko (Aramaiio barne) informazioa batuko du Saminek gidan sartzeko. Gainera, aurten, bertasunez beteta dator gida; besteak beste, diseinu eta zerbitzu berriak izango ditu. Eta urtarrilean ikusiko dugu lan horren fruitua. Gidaren 12.000 ale banatuko dituzte herri horietan guztietan.



IKER BARANDIARAN

Datozen egunotarako mobilizazioak iragarri ditu Arrasateko ezker abertzaleak.

BATASUNAREN LEGEZ KANPORATZEA/ Manifestazioak eta kale istiluak herrian

Batasuneko egoitza zaintzen, noiz itxiko zain

UBANE MADERA

Garzon epaileak abian ipinitako autoak eragina izan du Arrasate ere. Joan den astea ezker, Arrano elkartean zainketa txandak egiten ari dira gau eta egun. Manifestazioak ere izan dira herrian, baita kale erasoak ere. Besteak beste, PSE-EEren egoitzari margoa bota diote.

Oraindik Arrasateko Batasunaren egoitza itxi ez badute ere, Arrasateko alkatearen, Xabier Zubizarretaren, esanetan, "dagoeneko Garzon epaileak eta Espainiako Estatuak bere egitura osoarekin, Ertzaintza barne, egin dugu egin behar ziguna: Batasunari izatea debekatu".

Era berean, Garzonen autoak oraindik ez du eragin herriko Udalaren funtzionamenduan: "Garbi utzi nahiko nuke gure aldetik, behintzat, ez daukagula asmorik Arrasateko Udalean horrek eraginik izan dezan. Gure nahia izango litzateke Arrasateko eta Euskal Herri-

"Espero dut alderdi abertzaleen artean gaitasuna izatea ekimenean bat abian ipintzeko batera"

ko udalak inoiz baino hobeto lanean jarraitu ahal izatea. Beste kontu bat da zein egoeratarara eramango gaituzten eta hori posible izango den". Edozelan ere, egerra gaiztoztea ere espero du alkatetik: "Espero dut alderdi abertzaleen artean gaitasuna izatea, modu batera edo bestera, hemendik ondorio garbi batzuk ateratzeko eta bateratua izan daitekeen ekimenean bat aurrera bidean ipintzeko. Bestela, denbora latzak etorriko zaizkigu euskaldunoi".

Baina Udalean ez bada ere, kalean izan du eraginik Garzonen autoak. Manifestazioak ikusi ditugu, pintadak, eta kale erasoak. Eta datozen egunotarako ekimen gehiago iragarri dituzte.

Udaltzainak hasi dira gauez ere herria zaintzen

UBANE MADERA

Astelehenaz geroztik, Arrasateko Udaltzaingoa gaueko txanda betetzen ari da. Gaueko zaintza egin ahal izateko, udaltzain kopurua gehitu egin du Udalak. Orain, guztira, 26 langile daude.

Uste baino beranduago, baina azkenean herriko udaltzainak hasi dira gauez ere herriko kaleak zaintzen. Astelehenaz geroztik ari dira lan horretan. Hortaz, gaur egun, egunean hogeita lau orduko eta astean zazpi eguneko zerbitzua ematen du Arrasateko Udaltzaingoa. Udaleko Zerbitzu Saileko buruak, Jose Mari Urizar Ametzu-k, adierazitakoaren arabera, zerbitzu berria eskaini ahal izateko lantaldea handitu egin dute, 26koa lortu arte. Azken egunotan igarri da hori, kalean udaltzain berri asko dago-eta. Horietako asko, gainera, ez oso gertukoak; Tolosatik, Gasteiztik edo Bilbotik etorri dira, adibidez. Horrela, Urizarren esanetan, "24 langileko taldea hirutan zatitu dugu: zortzi goizez, zortzi arratsaldez eta zortzi gauez. Baina gau bakoitzean lau ibiltzen dira. Horrela, aste baten lan egiten dutenek hurrengo astean jai hartzen dute".

Gauean lan egiten duten lau udaltzainetatik bat udaletxe barruan egoten da beti. Eta beste hirurak kalean, autoarekin gora eta behera. Udaletxe barruan geratzen denaren lana da Laubideko aparkalekua zaintzea eta, jakina, telefonoa hartzea, "herriarren batek zerbait badu, beti egongo da norbait telefonoa hartzeko". Era berean, arazoren bat izanez gero, barrukoak kanpoan daudenei abisatuko die eta "hiru horiek ahalik eta agudoen arazoa dagoen tokira joango dira".

LAPURRENDAKO GAITZAGO

Jose Mari Urizarrek esan zuen bazegoela zerbitzu horren beharra: "Asmoa da aparkalekuekin dagoen arazoa zelanbait konpontzea, bereziki, espaloietan aparkatuta dauden autoena eta kamioiena". Esan digunez, Markuletan aparkaleku ugari daude ibilgailu horiendako, baina orain arte ez ziren hara eramaten ausartzen, lekua zaindu barik zegoen-eta. Orain, ordea, udaltzainak arduratuko dira zaintzeaz, hortaz, hara eraman ahal izango dituzte ibilgailuak. Horrez gain, "auzo guztietatik ere ibiliko dira, eta azkenaldian ugaritu egin diren lapurrak pixka bat kontrolatuta egongo dira. Ez denak, baina bai asko".



UBANE MADERA

Azkenaldian musu berriak ikusi ditugu herriko udaltzainen artean.

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

Aretz
Taberna
Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALET

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak osagaiak

Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



URIBARRIKO JAIETAN GIRO ONA NAGUSI

Uribarriko jaiak abuztuan izan ziren, eta hona hemen egun horietan hainbat lagunek ateratako argazkiak. Antolatzaileek hainbat bazkari egin zituzten: alde batetik, antolatzaile gazteenen bazkaria –besteak beste, Ikutixoarrak izan ziren

bazkari horretan; auzotarrei zuzendutako beste bazkari bat ere izan zen, eta bietan ere giro ona izan zen nagusi. Aurten, herri kirolak ere izan dira. Horrez gain, uribarriarrek musean eta boloetan benetako maisu direla erakutsi dute.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak


- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76




BESAIDETOKOAK PIRINIOETAN

Besaideko Gazte Ekintzak taldekoek Pirinio aldera txangoa egin zuten uztail amaieran. Denera, hamabost lagun animatu ziren, eta Riglos aldera egin zuten txangoa. Gazte Ekintzak taldeko lagunek Murillo de Gállego herrian igaro zuten asteburua, eta han kanoi jaitziera eta rafting egiteko aukera izan zuten. Gazte horiek hainbat ekintza antolatzen dituzte urtean barrena, baina arrakasta handien horrelako irteerak izaten dute. Aurrekontu mugatua dute, eta horrelako bidaiak ezin dira astebururo egin. Hala ere, beste ekintza bat prestatzen ari dira; hortaz, adi egon!



UHOLDEAK, USAINDU ERE EZ

Gari, Kaiet eta Lur Europako ekialdean egon dira oporretan, eta abuztuaren sekulako uholdeak izan badira ere, hiru lagun horiek ez dute inongo arazorik izan. Furgonetan ibili dira Europan zehar, eta, leku bitxiak ikusteaz gainera, pertsona bitxiak ere ezagutu ei dituzte.



ULURU~CENTRAL AUSTRALIA



MUNDUAN BARRENA IBILI DIRENAK

Oporretan izan da gutaz gogoratu denik; izan ere, munduko hainbat txokotatik iritsi zaizkigu postalak. Goikoak jaso ditugunen artean bitxiak dira. Argi dago Arrasatear batzuk ez direla Saloura edo Benidormera joatearekin konformatzen.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxes: 943 79 13 84

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

AUKEAk kirol ekintza berriak prestatu ditu ikasturterako

XABIER URZELAI

Uda amaitzeaz dagoela-eta, AUKEAk ikasturteari begira kirol ekintza berriak antolatzen ditu. Eskaintza zabala egitea da AUKEA kirol elkartearen helburua, eta eskaintza hori herri osoarendako izan dadila, ez kirola egitera ohituta daudenendako bakarrik.

Kirol ekintza gehienak irailaren 9an hasiko dira, eta gaur, egubakoitza, bukatzen da izena emateko epea. Dagoeneko muskulazio gela irailaren 2a ezker dago zabalik, eta igeriketa ikastaroak irailaren 16an hasiko dira.

Kirol jardueren ordutegiak ez daude oraindik guztiz zehaztuta; edozelan ere, astean bizpahiru egunean emango dituzte eskolak, egunero bizpahiru aldiz; hortaz, ordutegi aldetik ere hainbat aukera izango dira.

Guztira, hamabi bat kirol ikastaro izango dira. Batzuk oso ezagunak dira, gimnasia edo aerobika, esaterako, baina eskaintza berriak ere izango dira tartean: *spinning*-a, adibidez.

GERO ETA JENDE GEHIAGO

Azken urteotan ikastaro horiek gero eta arrakasta handiagoa izan



ARRASATE PRESS

AUKEAren helburua kirol eskaintza herritar guztiei zuzentzea da.

ten ari dira. Joan den ikasturtean 500-600 lagun ibili ziren ikastaro horietan, eta AUKEAren helburua da gorakada horrek etenik ez izatea. Helburu hori lortzeko, Musakolako kiroldegian egin dituzten lanek asko lagunduko dute; izan ere, kirol instalazio berriek erraztasun handiak ematen dituzte kirola egiteko.

Kirol ikastaro gehienak Musakolako kiroldegian egingo dituzte, baina sasoiaren egoteko gimna-

sia eta erretiratuendako gimnasia Iturripeko kiroldegian ere egin ahal izango dira.

Ikastaroak ikasturte osoan emango dituzte, uztaile arte, hain zuzen ere. Ikastaroen prezioak denetarikoak dira, hileko, 9 eurotik 33 eurora, jardueren arabera.

Bestalde, kiroldegiko bazkide ez direnek ikastaro horietan izena emateko zerbait gehiago ordaindu beharko dute.

FOTOKIROLA



Nesken futbol taldea, entrenatzaile bila

Arrasateko nesken futbol taldea gertu dago denboraldiari aurre egiteko, baina arazo bat dauka: taldeak ez dauka entrenatzailearik. Etxeko taldea erregional mailan dago, eta, hortaz, entrenatzaile lanak egiteko ez da titulu ofizialik behar. Liga hasteko ez da askorik falta, baina pertsona bat behar da orain arte Esti Loiti *Titu*-k egiten zuen lana betetzeko. Horrenbestez, Mondrako emakumeen taldeko entrenatzaile izan gura duenak 679 47 96 33 telefonora dei dezala./X.U.

FOTOKIROLA



Plazaola, Gipuzkoako Artzain Txakurren Txapelketan irabazle

Jesus Mari Plazaola arrasatearrak txapela eskuratu zuen domekan Legazpin jokatu zen Gipuzkoako Artzain Txakurren Txapelketan. Domekako proban 8 artzain elkartu ziren, eta Jesus Mari Plazaola eta *Argi* txakurra izan ziren txapelketako onenak. Hamabost egun barru Euskadiko Txapelketan izango dira biak, Gipuzkoako Txapelketan egindakoa errepikatzeko asmoz. /X.U.

FRONTENISA

Arrasateko Frontenis Txapelketan parte hartzeko izenemate epea zabalik dago

Arrasateko Frontenis Txapelketan parte hartu nahi duenak irailaren 18ra arte izango du izena emateko aukera. Horretarako, internetatik Musakolako kiroldegira jo beharko dute.

Txapelketa ibarreko frontenis-zaleei dago zuzenduta. Partiduak binaka jokatu dira, zapatuetan, Musakolako kiroldegian. Txapelketa irailaren 21ean hasiko da, eta Debagoieneko Txapelketako zirkuiturako baliazarria izango da. Arrasateko Txapelketako bikote irabazleak 12 puntu eskuratuko ditu. Txapelketan fase bi izango dira. Lehenengo fasea liga erara jokatu da eta bigarren fasean bikoteek kanporaketen bidez egingo dute aurrera.

MENDIA

Datorren asteburuan Oroimen Eguna ospatuko du Besaide Mendi Elkarteak

Urtero moduan, irailaren 15ean, Besaide Mendi Elkarteak Besaide Eguna edo Oroimen Eguna ospatuko du Besaiden bertan.

Beste urte batzuetan moduan, mendian hil diren mendizaleak gogoan izango dituzte Besaidera hurreratuko direnek. Besaide Mendi Elkarteak datorren domekako ekitaldia zehaztu barik dauka; edozelan ere, meza, dantzariak eta bertsolariak izango direla argitu digu elkartearen presidentek.

Besaide Mendi Elkarteak mondragoetar guztiei gonbidapena egin gura die datorren domekan, hilaren 15ean, Besaidera igo eta egun berezi horretan parte hartzeko.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ARRASATE HIRIA FUTBOL TXAPELKETA

Mondrak preferenteko taldeei irabazita eskuratu du aurtengo txapelketa

Aloña eta UDA preferente mailako taldeak dira, baina Arrasate Hiria Txapelketan Mondrak erakutsi du maila onena

XABIER URZELAI

Aurtengo Arrasate Hiria Txapelketa etxean geratu da, Arrasaten; izan ere, Mondrak 1-0 irabazi zion eguaztenean UDA taldeari. Aurreko domekan, berriz, etxekoek 4-2 irabazi zioten Aloña Mendiri. Aurrendenboraldia, behintzat, aipatzeko modukoa.

Arrasate Hiria Futbol Txapelketako lehenengo partidua zapatuan jokatu zuten UDA eta Aloña taldeek. Partidua ez zen bate-re ikusgarria izan, eta preferente mailan jokatu duten bi taldeek erakutsi zuten oraindik freskotasuna falta zaiela. Aretxabaletako taldeak Oñatikoak baino hobeto jokatu zuten, eta txantxi-kuarrak defentsa lanetan ibili ziren ia partidu osoan. UDA taldea erasoan ibili zen buru-belarri, baina ezin izan zuten golik egin. Azkenean, huts eta huts amaitu zen partidua.

Domekan, Mondra taldeari tokatu zitzaion zein egoeratan dagoen erakustea, eta Aloña taldea izan zuen aurkari. Josu Zubiak, Mondrako entrenatzaile berriak, jokalar asko ipini zituen jokoan lehenengo partiduan. Lehenengo zatian jokatu zuten hamaikakoa eta joan den denboraldian ikusi genuena guztiz desberdinak dira. Edozelan ere, ez da erreferentzia garbia, horrelako txapelketek jokalar asko probatzeko balio izaten dute-eta.

Mondrak lehenengo zatian egin izan zuen gauza handirik egin. Jokaldi bat egon zen aipatzeko modukoa, eta jokaldi horretan, Ekaitz Garmendiaren erdiraketa on bat aprobetxatuta, Jon Muruak, buruz, lehenengo gola egin zuen. Ondorengo minutuetan Oñatiko taldeak gora egin



Mondrak, ondo jokatu barik, partiduari ondo eutsi zion, eta bigarren zatian lortutako golari esker eskuratu zuen txapelketa.

XABIER URZELAI

Arrasate Hiria Txapelketako partidu ikusgarriena domekakoa izan zen

zuen eta, partidua berdintzeaz gain, aurre ere hartu zuen (1-2). Bigarren zatian, jokalar gehi-ago probatzeko asmoz, beste hamaikako bat zelairatu zuen Josu

Mondrak 4-2 irabazi zion Aloña Mendiri eta 1-0 nagusitu zitzaion UDARI

Zubiak. Etxeko taldeak biziago jokatu zuen, eta gol aukerak bikain aprobetxatu zituen. Xabi Mondragónen (1) eta Asier Gonzálezen (2) golei esker etxeko tal-

Mondrako entrenatzaile Josu Zubiak jokalar asko ipini ditu jokoan txapelketan

dea 4-2 nagusitu zen. Esan beharra dago azpimarratzekoak izan zirela Asier González Tiri-ren gol biak, txapela kentzeko modukoak izan ziren-eta.

EGUAZTENEAN ERE MONDRA NAGUSI

Eguazten arratsaldean Arrasate Hiria Txapelketa nork eskuratu-ko zuen argitu behar zen. Aurrez aurre Mondra eta UDA. Jende nahikotxo hurreratu zen Atxabalpera, eta seguru bat baino gehiago damutu ere egin zela, lehenengo zatian, batez ere.

Hasierako berrogeita bost minutuetan bi taldeetako inork ere ez zuen egin aipatzeko moduko ezer. Jaurtiketaren bat edo beste, besterik ez. Bigarren zatian gauzak dezente aldatu ziren, bi taldeek elkarri zioten errespetua alde batera utzi eta beldur txikiagorekin jokatu zuten, ausartago, alegia. Mondrak aukera garbiak izan zituen, UDAn ere bai -bat edo beste-, baina bi taldeetako inork ere ez zuen asmatu.

Partiduko gol bakarra Jokin Pavok egin zuen, areaz kanpoko jaurtiketa bati esker. Bigarren zatiko hamaseigarren minutuan izan zen. Jaurtiketa ez zen oso indartsua izan, baina ezinezkoa hobeto zuzenduta botatzea, eskuin zutoinean jo, eta barrura.

Ondorengo minutuetan jokoa zakartu egin zen, eta hainbat jokaldi gogor izan ziren. Bigarren zatian irten berriaren Andoni Azpiatzuk aldageletarako bidea hartu behar izan zuen, txartel hori bi ikusita.

Hala ere, etxeko taldeak ondo eutsi zion partiduari. Norgehiagoka amaitzeko minutu gutxi falta zirela, Aretxabaletako taldeko atezainetako bat ere jokalar lane-tan zebilen. Nekea izan zen nagusi azken minutuetan, eta inork ere ez zuen aparteko ezer egiteko gogo handirik erakutsi.

Azkenean, Jokinen golari esker eskuratu zuen Mondrak Arrasate Hiria Txapelketa, nahiz eta etxeko taldeak berdinketarekin ere nahikoa zuen.



XABIER URZELAI

Argider, Mondra taldeko kapitaina, Arrasate Hiria Txapelketako saria jasotzen.

Goiko mailakoen maila berberean

Mondrak horixe erakutsi du Arrasate Hiria Txapelketan, alegia, preferente mailan jokatu duten UDA eta Aloña taldeen maila berberean dagoela, gorago dagoela ez esatearren. Hala ere, aurten ere etxeko taldeak erregional mailan jokatu beharko du, eta maila horretan erakutsi beharko du badaukala taldea preferente mailan jokatzen.

Joan den urteko denboraldia amaitzerakoan argi geratu zuten denboraldia ondo hastea askok uste dutena baino garrantzitsuagoa dela, eta horretan ibili dira buru-belarri Arrasateko taldeko jokalar-iak.

Entrenatzaile berriak ere oso argi dauka hori, eta badirudi etxeko taldea denboraldia hasteko moduan dagoela, aurrendenboraldian gogor egin dute-eta lan. Eta horren erakusgarri, oraingo

asteen ikusi ditugun partidu biak.

Taldeko zuzendaritzak, bestalde, oso argi dauka aurten taldeak mailaz igotzeko borrokatu behar duela, baina ideia hori larregi errepikatzeak ere badauka bere arriskua.

Futbola jokoa da, eta ondo pasatzeko jokatu behar da. Askok lelokeriatzat hartuko dute esaera hori, baina dibertitzen ez denak nekez egiten du lana ordo. Eta Mondrak horixe behar du: ondo pasatuz gauzak ondo gitea.

Futbolaren gainean eta Mondraren gainean nahikotxo dakien bati zera entzun nion orain dela gutxi: "Mondrak Atxabalpen ez du bururik altxatuko. Mojategiko zelaia egiterakoan beste kontu bat izango da". Mojategiko zelaia oraindik proiektua baino ez da, eta hori denbora luzeegia da.

GASTRONOMIA ELKARTEAK / San Isidro elkarteak 50 urte bete ditu

San Isidro elkartearen urrezko ezteiak ospatzeko, liburua kaleratu berri dute

IKER BARANDIARAN

Musakolako San Isidro gastronomia elkarteak 50 urte bete ditu. Hori aitzakiaz hartuta, San Isidro elkarteko batzarkideak elkartearen beraren eta Musakolaren gaineko liburua prestatzen ibili dira.

Zigorrolako San Isidro elkarte urtemugako ospakizunetan murgilduta dago. Mende erdian elkarte horren baitan Zigorrolako hainbat eta hainbat belaunaldi batu dira. Urteurrena ez da edonolako, ez horixe, eta hori ospatzeko, batzarkideek elkarte horren historia batzen duen liburua prestatu dute. *Cincuentenario 1952-2002. Urrezko ezteiak. San Isidro Labrador elkarte* izeneko lan interesgarriak hogeita hamasei orrialde ditu, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako dago eta berrehun ale argitaratu dituzte.

Liburua gaur bertan, egubakoitza, aurkeztuko dute, 19:00etan, San Isidro elkartearen bertan, eta bazkide bakoitzari liburu bana opari egingo diote. Liburua hainbat ataletan banatuta dago, eta gaur egungo presidentearen agurrak egiten dio harrera irakurleari.

BITXIKERIA, ARGAZKI ETA PASADIZOAK

Jarraian, Zigorrola auzoko hasierari gainbegiratu egiten diete, hasierako baserriak gogora ekarri eta garaiko pasadizoak kontatuta. Behin testuingurua azalduta, egileek elkartearen beraren sorrera azaltzen dute, baita adostutako funtzionamendu mota ere. Horrekin batera, elkarte horrek Zigorrolaren baitan auzoko giza mugimenduak biltzeko izan duen zeresana, jaietan izan duen protagonismoa eta astoaren kontuak ere ezagutzera eman gura izan dituzte.

Azaltzen diren bitxikeriei dagokienez, 1998. urtean, San Isidro elkarteko batzar orokorrak emakumeak bazkide hartzearen gaineko bozketa egin zuen. Dirudienez, Arrasaten halako bozketa egin zuen lehenengo elkarte



SAN ISIDRO LABRADOR

Gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute liburua, 19:00etan, eta bihar bazkaria egingo dute

izan zen San Isidro, eta gehienago ezezkoren aldekoa izan zen.

Elkartearen sortzaileak ere gogoan izan dituzte, eta guztien zerrenda argitaratu dute. Horrez gainera, urterik urte elkartearen presidente izan diren guztiak ageri dira. Zerrenda horretan epe nagusi bi nabarmendu dituzte: bata, 1952. urtetik 1971. urte artekoa, elkarteak atezaina izan zue-

Elkarteak ehun eta hogeitaz bazkide ditu. Gazteenak 27 urte ditu eta zaharrenak, berriz, 87

nekoa; eta bestea, handik aurrerakoa, atezainik gabekoa. Elkarteak 120 bazkide ditu. Gazteenak 27 urte ditu eta zaharrenak, berriz, 87. Auzoaren eta elkartearen argazki mordoa ere batu dituzte, eta San Isidroko eresia ere sartu dute liburuan.

Gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute liburu hori, 19:00etan, San Isidro elkartearen bertan, eta

Errioxako ardo onduko hainbat botila atera dituzte, urrezko ezteien leloarekin

bazkide guztiei liburu bana opari egingo diete.

ZIGORROLAKO ERRIOXAKO ARDOA

Zapatuan, 12:30ean, meza entzungo dute ermitan, eta 14:30ean, bazkaria izango dute. Horrez gain, Errioxako ardo onduko bostehun botila atera dituzte, urrezko ezteien leloarekin eta, jakina, astoaren irudiarekin.

Goikobalukoak lanean hasi dira berriro

Goikobalu taldeko abesbatza guztiek ikasturte berria hasi dute. Nagusien abesbatzak joan den martitzenean, 21:00etan, hasi zituen entseguak, Arrasate Musika kaleko egoitzan; Goikobalu Txikikoak -zazpi eta hamabi urte bitartekoak- irailaren 12an, 19:00etan, batuko dira lehen aldiz, Gazteluondoko aretoan; eta, azkenik, Goikobalu Gaztekoak -hamabi eta hemezortzi urte bitartekoak- irailaren 17an, 17:00etan, hasiko dituzte entseguak, Gazteluondoko aretoan.

Oraindik ez dakigu Goikobalukoak datorren ikasturterako zein erronka berri duten, baina ziur ikasturte honetan ere ekitaldi eta kontzertu mordoa antolatuko dituztela. Oporren aurretik egin dituztenei gainbegiratu egin besterik ez dugu. Horra hor, Goikobalu Txikik eta Goikobalu Gazte egindakoak.

Urtarrilean, Amaia Udala Antzokian David Azurtzaren *Horra Mari* gabon ipuina abestu zuten. Hilabete berean, Goikobalu Txikiko abeslariak Segurako aterpetxean Ahots Teknikak, Gorputz Espresioa eta beste hainbat ariketa berezi egin zituzten.

Otsailean, Goikobalu Txiki abesbatza abeslari berri ugari sartu ziren. Eta are gehiago, martxoan, Goikobalu Abesbatza inoiz izan duten abeslari zerrenda luzeena osatu zuten.

Apirilean, Goikobalu Gazteko hogeitaz abeslari, hamarrek bi taldetan banatuta, Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketan parte hartu zuten. Azkenean, hamar neska osatutako Xarma taldea finalera heldu zen. Xarma taldekoek Beatles taldearen *Let It Be* kantua euskarazko bertsioa abestu zuten: *Ez etsi*. Entzuleen saria eskuratu zuten.

Maiatzean, San Andresko parrokiaren Sarajevo eta Mostar-ko haurrentzako ospitale baten alde kontzertua eman zuten. Eta Goikobalu Gaztekoek Zarautzera jo zuten. Are gehiago, bitaldeek Santa Teresako parrokiaren abestu zuten.

Ekainean, Arizmendi Ikastolak antolatutako Abesbatzen Topaketetan parte hartu zuten; eta San Juan jaietako Dragoi Jan entzutetsuan Goikobalu Gazteko Xarma taldeak afalosteko saioa eskaini zuen.



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22

ARRASATE

Tel.: 943 79 15 65

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

GUREGAIK/ OPOR OSTEKO AZTERKETAK

Oporrak bukatu dira, eta batzuek azterketak dituzte dagoeneko

IKER BARANDIARAN

A ze ondo egon garen oporretan, ezta? Eta herrian bertan ikasteko asmoz gelditu direnak, behintzat, ez zuten eguraldiaren inbidiarik izango. Eguzkiak ez du askorik berotu, eta etxean gelditzea gozotu egin du abuztuak.

Oporrak gustura eta lasai egoteko sasoi aproposa izan ohi dira, baina ikasle batzuek uztailan eta abuztuan ardura puntua izaten dute. Badira udan diziplina osoz ikasten ibiltzen direnak. Beste batzuek, ordea, liburuak hartzeko, uda bukaera arte itxaroten dute. Dena dela, bien kasuan irailaren hasiera ez da sasoi eroso izaten, eta urduri eta lanpetu samar ibiltzen dira.

UNIBERTSITATE MAILAKO IKASKETAK

Gaztetxoan alde batera utziko ditugu, horien azterketak gainditzeko ez dago eta askorik ikasi beharrik. Ez, behintzat, nagusiagoek dituzten azterketekin alderatuz gero. Unibertsitate mai-

*Monterron eta
Eskolako
liburutegia dira
ikasteko leku
ohikoenak*

lako ikasleen gainean berba egingo dugu, hortaz. Arrasate inguruko eskola gehienek irailaren hasieran jarri dituzte azterketak eta hilaren bigarren erdira arte luzatuko dira. Euskal Herriko Unibertsitateak ere hala egin du.

Uda ederra igaro dutenen artean, opor aurretik Selektibitatea egin berri dutenak daude. Ekainean oporrak hartu eta urriaren hasieran unibertsitateetako ikasturteak hasi artean, ez daukate beste eginbeharrekorik.

Beste ikasle askok, ordea, irailan liburu artean egon beharko dute. Azken egunotan ohikoa da, esaterako, Monte-



XABI URZELAI

Gazte asko ikasteko leku bila ibiltzen dira Monterrongo liburutegian.

rrongo liburutegian hainbat ikasle ikustea. Horrez gain, Arrasateko ikasleek azterketak prestatzeko sarri erabiltzen duten beste leku bat Eskola Politeknikoko liburutegia da. Duela gutxi bertu dute liburutegia eta ikasle askorendako lekua dauka. Astelehenetik eguenera, 07:45etatik 00:00etara egoten da zabalik. Egubakoitzetan, berriz, 18:00ak alde- ra ixten dute.

Eskola Politeknikoko ikasle ez bazara edo Monterrongo liburutegian lekurik topatu ez baduzu, zure etxean bertan ikasi besterik ez zaizu gelditzen. Edozelan ere, etxean ikasiz gero, zelanbaiteko abantailak badituzu: zuk aukeratzeko duzue goizez, arratsaldez edo gauez ikasi, eta laguntasuna beharrean, isiltasuna eta kontzentratzeko erraztasun handiago izango dituzu.

Likidazio osoa

2x1

arropetan

**Oinetakoak:
Pare solteak 18 €**

Zarugalde 16. Arrasate
943 79 44 88

T. Aranzadi 2. Bergara
943 76 58 47

BEHEKOERRETEGITTIK

Ramon Altuna

BOLIÑETE OILLASKO ERRETEGIEKUE

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Ramon Mondraguen jaixo zan, baita bertan bizi be, eta ez litxakixo gustauko hiri batera bizi izetera juetie. Oin dala sei urtetik hona, Zarugalde kaleko Boliñete erretegixen egitten dau lan, sukaldien, eta oso gustora dabil. Herrixek daukon alde txar bakarra aparkalekuen asuntue dala uste dau Ramonek.

Amets bat?

Amets gutxi eukitten dot.

Eta amets txar bat?

Ezta be, pasaute daguz horreik ametsok.

Egin dozun azken biajie?

Aurreko urtien, Extremadura.

Txartel horixe, zeñei?

Gasteizko gobernuari.

Eta gorrixek?

Hori be politikuei, Madrilleko gobernuari.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

El último mohicano / El Hobbit

Euskal musikie jeneralien.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Normalizauko neuke, bai.

Ze dauketzu sobran?

Ezer be ez.

Eta faltan?

Mundu danai falta jakona: dirue.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Ez dot egitten ez bata eta ez bestie, baiñe txikiteue gurago dot.

Etxeko zapatillak ala zapatat?

Kirola egitteko, zapatillak gus-torago.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?


Dana, baiñe, bereziki, Monterron eta Santa Barbara.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkaleku gehixago jarriko neuke.

Eta lehendakari izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Lanpostu gehixago eskeiñiko



"Egitten dittugun oillaskuek euskaldunek die, Arabatik ekarten dittugu-eta"

"Egixe esanda, ez dot uste momentu honetan iñungo biziorik daukotenik, ondo nago"

neuke.
Bizio bat?
Ez dauket bat be.
Mendi bat?
Orixol aldie.
Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?
Ez nitzake juengo hiri batera bizi izetera, ondo nago hemen.
Ezagutzen dozun pertsóna interesante bat?
Familixie, anai-arrebak.
Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?
Ez dauket preferentziarik, danok berdiñek garefa uste dot.
Telebisiñoko programa bat?
Western pelikulak.
Eta irratikue?

Gutxitan entzuten dot, jeneralien, momentuen dagueña.
Zertan gastauko zeunke dirue gustora?
Familixiari lagunketan.
Boliñete oillasko erretegixe. Besterik eskeintten dozue?
Oñarrixen oillaskue dago, eta harekin batera jatekuek emuten dittugu: ensaladak, postriek...
Nungo oillaskuek die?
Euskaldunek, arabarrak.
Arrasaten ikasle asko daguz. Zuek igerten dozue?
Denboraldixek egoten die. Baiñe normalena eskola aldamenekuek igertie da.
Oillaskue gustetan jatzu?
Jakiñe, betidanik!

NIREBIDAIAHURA/ Mikel Lagunilla

Turkiara /2002ko uztaillean

Mikel irakaslea da, eta irakasle izateak gauza bat dauka ona: sekulako oporrak izaten dituztela. Mikelek bi hilabete izan ditu deskantsatzeko, baina deskantsatu beharrean lanerako asmoz hartu zituen Mikelek oporrak. Lan egin eta leku berriak ikusi, horixe zen helburua.

Helburu hori betetzeko asmoz, Turkiarako bidea hartu zuen Mikelek uztail hasieran. Gasteizko lagun batekin abiatu zen, eta lehenengo bost egunak Istanbulean egin zituzten. Hiriburuan turismo apur bat egin zuten, baina ikusi beharrekoak ikusi eta gero, Turkiako hego-mendebale-rantz jo zuten, Karakahisar herrira, hain zuzen ere.

Karakahisar herrian egin zireno auzolandegietan lan egiteko asmoz joan ziren Mikel eta Gasteizko laguna. Guztira, hamabost lagun elkartu ziren: euskaldunak, espainiak, korearrak, turkiarrak... Elkarki ulertzeko ingelesez egiten zuten berba, eta tira-biraren bat edo beste izan bazen ere, bikain moldatu ziren: "Guk ez genuen izan inongo arazorik, baina turkiarren artean izan zen haserren bat edo beste".

Mikelek dioenez, Istanbulean izan zirenean turista hutsak ziren, eta jendea ahalik eta diru gehien ateratzeko asmoz hurbiltzen zen euren gana. Karakahisarrera lanera joan zirenean gauzak asko aldatu ziren: "Agian hori izan da bidaia honetan izan dudana esperientzia politena, hango herritarrekin izan genuen harremana, hain zuzen. Hangoendako ez ginen turistak, gonbidatuak baizik".

Hasiera baten, eskola bat margotzea zen asmoa, baina beste lan batzuek lehentasuna zeukatela-eta, herriko lurrak konpondu, hango Imán-ari etxea egin eta beste hainbat lanetan ibili zen Mikel: "Egia esan, guk asto-lana egiten genuen, baina, hala ere, gustura". Herritarrek euren etxeetara gonbidatu zituzten afaltzera, eta gutxi bazeukaten ere, zeukatena banatzeko zeukaten. Ez dauka duda izpirik, berriro ere joango litzateke Mikel.

XABIER URZELAI



Mikel Lagunilla, Karakaisharren lanean.

Herrialde berriak bisitatu dituzu udan?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude? Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

Arrasate PRESS



ZAHARREN ETXETIK



JUAN LUIS RODRIGUEZ

Uribarriko baserrietako, kaleko eta erretiratuen ordezkariak parte hartu zuten auzoko banderaren inaugurazioan.

Uribarriko erretiratuen elkartean bandera estreinatu dute

IKER BARANDIARAN

Aurtengo Uribarriko San Bartolome jaiak bereziak izan dira oso. Lehenengo aldiz Uribarriko baserri- auzoak eta kale-auzoak batera antolatuta dituzte jaiak. Horren erakusle da, esaterako, Uribarriko zaharren elkartekoek auzoko armarrria duen bandera estreinatu izana.

Auzotarrek bandera horretan Uribarriko armarrria jarri dute, eta ez da ez egun bateko kontua izan. Orain dela hainbat urte, Uribarriko baserri-auzoko alkatere Jone Bergaretxek topatu zuen armarrri hori. Izan ere, Jone Bergaretxek auzoaren historiaren gaineko bilaketa ugari egin ditu eta horietako hainbat jaietako programetan plazaratu izan ditu. Jonek bazekien armarrri hori zegoela eta duela lau bat urte Emilio Lagunillak zeukan liburu baten topatu zuen.

Uribarriko zaharren elkartekoek ekainaren bukaeran Jonek lortutako armarrriaren irudia hartu, eta herriko saltoki baten ban-

dera bat egitea eskatu zuten. Horrekin batera, Ikurrina eta Mondragoeko bandera egitea ere eskatu zuten.

BANDERA JAIETAN ESTREINATU ZUTEN
Dendan bandera egin orduko hila-bete pasatxo igaro zen, eta San Bartolome jaietan, irailaren 23an,

1540. urteko armarrria

Uribarri abizenaren jatorria ez dago guztiz argi. Batzuen ustez, bizkaitarra da eta beste batzuen ustez, gipuzkoarra. Jone Bergaretxek topatutako armarrrian urrezko xebroiak, zazpi lantza mutur eta zilarrrezko hiru dorre ageri dira. Zaharren elkartekoek egindako bandera halakoa da, baina koloreen indarra ez ei da hain indartsua.

inauguratu zuten. Ekitaldian 110 erretiratutako eta 16 auzotarrek hartu zuten parte. Auzoko bandera, Mondragoeko bandera eta Ikurrina eseki bezain laster, Kepa Urainek idatzitako bertso batzuk irakurri zituzten eta auzoko gizon eta emakume nagusienek, Visitation Losadak eta Julian Azpitartek, agurra egin zuten. Horren ondoren, han batutako guztiek afari goxoa egin zuten. Afalostean, guztien artean lau lorontzi handi zozkatu zituzten eta opari batzuk banatu zituzten. Eta bukatzeko, Gau-Alai taldearekin dantzaldia izan zuten.

Gauzak horrela, Uribarri zaharren elkartekoak oso pozik gelditu ziren, baita auzoko batzarkideak ere. Auzotarren ustez, bandera horrek, zelanbait, auzoko bi muturren eta erretiratuen lankidetzatza irudikatzen du.

Une honetan, Uribarriko armarrria daukan bandera zaharren elkartean esekita dago, Ikurrinaren eta Mondragoeko banderaren alboan, baina, behar bada, ekitaldi berezietan bakarrik zintzilikatuko dute.

LABUR

Irailaren 18an, Arrasateko 1950eko kintokoek Errioxara txangoa egingo dute

1950eko kintokoek -1929an jaiotakoek- Errioxara txangoa egingo dute irailaren 18an (eguztana). Garibaitik irtengo dira, 08:30ean, eta Biasteriko Señorío de Araco upeltegian hamarretakoa egingo dute. Horren ondoren, Logroñon txikiteoa egin, eta Fuenmayorren bazkalduko dute. Interesatuok Jose Oleari (943 79 11 15 edo 943 79 22 79) edo J.L. Arantzabali (943 79 13 51) deitu, irailaren 11 aurretik.

Ehoziri ikastarorako eta Errioxarako bidaiarako izenematea zabalik Toki Argin

Dagoeneko lanean hasi dira Toki Argi zaharren elkartekoak. Urriko lehenengo martitzenean, ehoziri (bolillo) ikastaroa hasiko dute. Interesatuok dei egin diete lehenbailehen izena emateko. Bestalde, irailaren 21ean, Errioxara txangoa egingo dute. San Miguel de la Cogolla eta Logroño bisitatuko dituzte. Interesatuok 19 euro ordaindu beharko dituzte, eta lehenbailehen izena eman.

ZAHARREN AHOTIK

Prudencio Laskurain

URIBARRIKO ZAHARREN ELKARTEKO BATZARKIDEA

Prudencio Laskurain antzuolarra da jaiotzez, baina sanjuanetan Arrasaten neskalaguna topatu, eta ordutik hona hemen bizi da.

Baserrian jaio eta bizi izandakoa zara, ezta?

Bai. 1936. urtean, Antzuolako *Eguskita* baserrian jaio nintzen, hamar anai-arreba artean azkenaurrekoa. Ni jaio eta gutxira, gerratik ihesi zihozazen Bergarako beste hiru familia gurekin bizi izan ziren eta jende pilo bat ginen. Txikitik, Antzuolako Uzarraga eskolan ikasi nuen, Arrasateko Don Elias Aspiazu maisuarekin. Gero, Bergarako Herri Eskolara jo nuen, eta han ikasi nuen, hamalau urterekin baserrira lanera bueltatu nintzen arte. Hantxe ibili nintzen baratzean eta ganaduarekin lanean, hamazortzi urte bete arte.

Gero, fabrikan lanean hasi zinen?

Bai, Bergarako Construcciones Mecánicas Textiles fabrikan lanean hasi nintzen eta hamar urte egin nituen



han. Bueno, tartean, soldadutza egitera joan behar izan nintzen, Santanderrera eta Valladolidera. Soldadutza egitea ez da inoiz atsegina izaten, baina, behintzat, gaztelania hobetzeko aukera izan nuen.

Eta gero, Arrasatera etorri zinen?

San Juan jaietan Garagartzako Edurne Bidaburu ezagutu nuen, eta 1967an ezkondu ginen, Arrasaten. Coprecin lanean hasi nintzen, gero, Fagor Electronican, Aurkin eta Fagor Sistemak-en, 1999an erretiratu nintzen arte. Aurtentzen, Uribarriko zaharren elkarteko batzarrean hasi naiz.

AEDK GAZTE ERAGILE BAT KONTRATATU NAHI DU

Eskatzen da:
Euskara maila ona, ahoz eta idatziz.
Taldean lan egiteko gaitasuna.
Harremanetarako gaitasuna.

Eskaintzen da:
Egun erdiko lan jarduna.
Lan baldintza duinak.

Interesatuok, bidali curriculumak AEDra irailaren 13a baino lehen.



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



ARRASATE
Roberto Gómez
Abuztuaren 28an, 31 urte.
Zorionak eta muxu handi bat, lagunen partetik.



ARRASATE
Asier Etxebeste
Abuztuaren 31n, 32 urte.
Zorionak eta muxu handi bat, lagunen partetik.



ARRASATE
Iker Ayesa
Irailaren 2an, 32 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagunen partetik.



ARRASATE
Igor Martínez
Irailaren 7an, 32 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagunen partetik.



ARRASATE
Leire Ortubai
Irailaren 5ean, 2 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Alaiur Aitzelai
Abuztuaren 25ean, urtebete. Zorionak! Etxekoak eta laguntxoak.



ARRASATE
Pilar Larrañaga
Abuztuaren 28an, beste urtetxo bat. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Arantzazu Lagunilla
Abuztuaren 26an, 29 urte. Zorionak, *prexiola!* Zure Lankideak.



ARRASATE
Irati Arantzabal
Abuztuaren 1ean, 25 urte. Zorionak, Irati!!! Mikel.



ARRASATE
Mikel Alkorta
Abuztuaren 13an, 25 urte. Zorionak, Mikel!!! Irati.



ARRASATE
Josu Balantzategi
Abuztuaren 18an, 24 urte. Zorionak, Suso!!! T.M.T.



ARRASATE
Susana Carrasco
Abuztuaren 19an, 27 urte. Zorionak, Susana!!! Iker.



ARRASATE
Jon Albes
Abuztuaren 30ean, 24 urte. Zorionak, Albes!!! T.M.T.



ARRASATE
Ander Aiastui
Abuztuaren 31n, 25 urte. Zorionak, Skritx!!! T.M.T.



ARRASATE
Anartz Bereizibar
Irailaren 5ean, 24 urte. Zorionak eta urte askotarako!!! T.M.T.



ARRASATE
Aitziber Zumalde
Irailak 6an, 23 urte. Zorionak, Aitzi!!! Jon.



ARRASATE
Dirk Michbronn
Irailaren 7an, 24 urte. Zorionak, Dirk!!! T.M.T.



ARRASATE
Milagros Beitia
Abuztuaren 21ean, urtebetetza. Zorionak, tia Mila! Aitor eta Josu.



ARRASATE
Lourdes Ibabe
Abuztuaren 29an, urtebetetza. Zorionak, ama! Aita, Oier eta Hodei.



ARRASATE
Mikel Elizaran
Abuztuaren 14an, 5 urte. Zorionak, etxekoan partetik.



ARRASATE
Eider Amondarain
Abuztuaren 2an, 28 urte. Zorionak, *Bixenta!!!*



ARRASATE
Paul eta Jon Uriarte
Jonek 4an eta Paulek 6an (4 urte), urtebetzea. Zorionak, bikote! Amaxoren eta Itziarren partetik.



Gida Komertziala 2003, abian!

Aurten, berritasunez beteta

- Zerbitzu gehiago...
- Diseinu berria...
- Publizitate aukera handiagoak...


2003. urteko Gida Komertziala prestatzen hasi gara. Laster pasatuko gara zure denda, enpresa edo komertziotik.

Hurrengo egunotan, **Samin Larrañaga** publizista izango da zurean.


Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Samin Larrañaga

INFORMAZIO GEHIAGO: 943 71 23 91



EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Aste honetako galdera: non dago argazkian azaltzen den atea?
Arrastoa: erdialdean dago, baina ezkutuan.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Torrealdea Errioxako ardo beltza
75 cl-ko botila

1,59 € 265 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

ARRASATEKO HISTORIA

Garai baten, Arrasateko herriak bost sarrera zituen

JON ANDER RAMOS

Garai baten, Arrasate harresiz inguratuta zegoen, eta harresiak berebiziko garrantzia zuen. Herrira sartzeko bost ate zeuden, eta gaur egun, hiru ate baino ez daude. Zurgin kantoiko atea -Monterron jauregiaren aurreko aldean dagoena-, Iburriko atea -Concepción Komentuko jaitsieran- eta Portaloiko atea edo "Beheko Portaleko" atea. Falta diren bi ateak Gazteluondoko Arrabal atea eta Olarteko kantoiko ateak dira. Azken ate hori 1891ko abuztuan desagertu zen.

Bost ate horiek gauzez itxi egiten zituzten, gerra garaian, bereziki. Arku ezagunena Portaloiko atearena da, herriaren erdialdean dagoen atea da eta. Arku hori 1768. urtean egin zuten, baina ez da Portaloiko ate originala. Gaur egun Portaloian dagoen arkua Gazteluondoko sarrerarako egin zuten. Garai hartan Leintz Gatzagatik zetorren bidea kontuan hartuta, Gazteluondoko sarrera zen Arrasateko sarrera garrantzitsuen, eta, hori dela eta, arku politena

*Portaloiko arkua
Gazteluondoko
sarreran zegoen
lehen, baina lekuz
aldatu zuten*

Gazteluondoko sarreran egin zuten.

Urte batzuk geroago, herrira sartzeko beste errepide bat egin zuten, Arrasate pasealekua izenekoa. Errepide berri horrekin Portaloiko sarrera bilakatu zen herriko sarrera garrantzitsuen, eta Gazteluondoko sarrerak garrantzia galdu zuen.

Arrasateko agintariek arazo bat zuten: arku politena Gazteluondoko sarreran zegoen, eta Gazteluondoko sarrera ordurako ez zen Arrasateko sarrera garrantzitsuen. Portaloian, berriz, arku sendo eta zatar bat zegoen. Konponbidea ez zen makala izan: Gazteluondoko arkua harriz harri desmuntatu, eta Portaloian jarri zuten.



ARRASATE PRESS

Herritar asko elkartzen da egunero Portaloian, herriko gune garrantzitsuenetakoan.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko irailaren 6a / 36. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorlora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Arrasatera eta Gasteizera joateko autobus zerbitzu berria abian da

UBANE MADERA

Astelehenaz geroztik abian da Aramaiotik Arrasatera eta Gasteizera joateko beste autobus zerbitzu bat. Arabako Foru Aldundiak ipini du zerbitzua. Besteak beste, Aramaion baserrietaraino joateko aukera emango du. Horretarako, taxi zerbitzua ipini dute.

Astelehenetik barikura, 07:00etan hasi eta 21:00ak artekoa da zerbitzu berria, eta, esan bezala, Arrasate eta Gasteiz lotuko ditu, baina Aramaion barrena. Oro har, orain arteko autobus zerbitzuekin alderatuz gero, bikoiztu egin dute autobus kopurua. Horrela, goizean lau autobus irtengo dira Arrasatetik Aramaiora, eta horietatik, bi joango dira Gasteizera. Arratsaldean, berriz, bost autobus izango dira Arrasatetik, eta horietatik bi joango dira Gasteizera. Alderantziz ere, hau da, Aramaiotik Arrasatera edo Gasteizera, berdina izango da: lehen bi autobus zeuden lekuan orain lau izango dira.

Autobusa Ibarrik irteten da Aramaion, eta Arrasaten sei geraleku ditu: Gesalibarren, Gara-gartzan, Uribe auzoan, Eskola Politeknikoan, San Andres auzoan eta Arrasate erdialdean.

BASERRIETARAINO

Maiztasunaz gain, baina, autobus zerbitzu horrek beste berrietasun garrantzitsu bat ere badu: aramaioarrei euren baserrietaraino iristeko aukera ematen die. Horretarako, taxia izango da Ibarrian. Horrela, Arrasaten autobusa hartu Ibarraraino, eta han taxiak baserriraino eramango du



JULEN IRIONDO

Ibarrara autobusez igo eta gero, taxi batek baserrietara eramango ditu bidaiariak.

bidaiari aramaioarra. Zerbitzu horren ordutegia zehaztuta dago: goizean 12:15eko autobusean datorrenak erabili ahal izango du taxia baserriraino; eta arratsaldean, 20:20ko autobusekoak.

BEZPERAN DEITU BEHAR

Jakina, alderantzizko bidea egiteko (baserritik Arrasatera edo Gasteizera) aukera ere izango da. Horretarako, bidaiatzea gura den egunaren bezperan deitu behar ko zaio Aramaioko taxiari. Eta taxia bera igoko da baserrira, bidaiarien bila. Gero, Ibarrian utziko ditu bidaiariak, eta han hartu ahal izango dute autobusa. Kasu horretan ere bi autobus izango dira: goizean hamarrak

eta laurdenetan bata eta arratsaldean zazpiak laurden gutxitan bestea. Deitu beharreko telefono zenbakia 629 54 59 23 da; eta gogoratu ezinbestekoa dela bidaiaren bezperan deitzea, bestela, taxia ez da igoko.

BEHIN-BEHINEKOA

Esandako moduan, oraingo astelehenean estreinatu dute autobus zerbitzua. Arabako Foru Aldundiak Hermanos Arriaga enpresari adjudikatu dio. Aipatu dugun moduan, autobusen ordutegia ezarrita dago, baina behin-behinekua da, zerbitzuak zelan funtzionatzen duen ikusi arte. Hortaz, baliteke aldaketaren bat zein beste izatea.



Bihar, plater tiroketa Kurtzetan

Bihar, zapatua, plater tiroketa jardunaldia izango da Kurtzetan, 15:30etan. Kurtzeta-Gain elkarteak antolatuta, 50 bat lagunek parte hartzea espero dute. Azken urteotan moduan, Bizkaitik, Arabatik eta Gipuzkoatik etorriko dira. Betiere, jakina, eguraldiak lagunduz gero. Bestalde, argazkiko taldea bigarren izan da Arabako txapelketan, Okendoren atzetik eta Amurrioren aurretik.



32. aldiz, Marixeka Eguna

Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, domekan ospatu zuten aramaioarrek eta Aramaiora etorri zirenek Marixeka Eguna. Argazkian ikusten denez, goizean goiz hasi ziren guztia prestatzen, jendea zetorrenarako hamarretako goxoa gertu izateko. Eta hortik aurrera, denetik izan zen Albiña inguru hartan: meza, bertsolariak, dantza-saioa, bazkaria... Dena, giro ezin hobean.

LABUR

Internet gertuago izan da Aramaion, Konekta Zaiten autobusari esker

Oraingo astean, pare bat egunez, Eusko Jaurlaritzaren Konekta Zaiten izeneko programaren autobusa Aramaion izan da. Autobus horrek Internetera konektatutako 16 ordenagailu ditu, jendeak Internet erabili ahal izateko. Bereziki, erraztasun urrien dituztenei zuzendutako ekimena da, hala nola: emakumeei, 60 urtetik gorakoei, langabeei...

Zinegotzi berria izango da Udalean

Aurtengo legegintzaldian zinegotzi berria izango da Udalbatzarrean. EAJ alderdiaren barruan, Bixente Mondragon zinegotziak utzitako lekua Meritxe Mondragónek beteko du.

Turistak erakartzeko ekimen berezia egin dute Gasteizen Floren Unzueta-aren eskutik

UBANE MADERA

Oporrak aprobetxatzen, aramaior bat baino gehiago Gasteizera joan da abuztuaren San Pedro eliza bisitatzen. Izan ere, han Floren Unzueta aramaiarra bisitariendako organo kontzertuak ematen ibili da. Aste Santuan berriro ere egongo da aukera.

Arabako diputazioaren eta San Pedro elizaren artean turistak erakartzeko ekimen berezia antolatuko dute aurtengo abuztuaren San Pedro elizan organo kontzertua entzuteko eta gero organoa bera erakartzeko aukera. Floren Unzueta aramaiarra ibili da jardun horretan, hura da eta San Pedro elizako organo jotzailea. Abuztuaren 19an hasi eta 31ra arte ibili da zeregin horretan, eta, kontatu digunez, izugarriko arrakasta lortu dute: "Ez genuen horrelakorik espero. Egundoko arrakasta izan du. Gure asmoa zen turistak erakartzea (katalanak eta madrildarrak etortzen dira,



NEREA ZUBIETE

Etxetik eramandako organo txiki bat erabili du Floren Unzueta organoaren nondik norakoak erakusteko.

bereziki), baina ikusi dugu hemengo jende ugari ere etorri dela: Gasteiztik, Otxandiotik,

Arrasatetik, Aramaiotik...". Organo jotzaile aramaiorrek kontatu digu ekimen horren alde

didaktikoa gustatu zaiela bereziki bisitariei, hau da, organoaren funtzionamendua ikustea. Horre-

"Nire helburua izan da erakustea organoa ez dela leku ilunetan dagoen zerbait"

tarako, etxean duen organo txiki bat erabili du eta edozeinek ulertzeko moduan erakutsi ditu organoaren nondik norakoak. "Nire helburua izan da erakustea organoa ez dela leku ilunetan dagoen zerbait. Era berean, ez du sinesmenarekin zerikusirik; sinistu edo ez sinistu, organoaren doinua bihotzean sartzen den zerbait da. Bach-ek esandako moduan, behin haren doinua entzunda ez zaitu axolagabe uzten".

Arrakasta ikusita, ekimena errepikatu egingo dutela adierazi digu Floren Unzueta; hasterako, datorren Aste Santurako dute asmoa. Gogoarekin geratu denak orduantxe izango du aukera.

BOTEPRONTOAN / Enrike Ullibarriarana · Kurtzeta-Gain taldeko kidea

"Aramaion betidanik izan da plater tiroketarekiko zaletasuna, auzo guztietan, gainera"

Gainerako kirolen artean, plater tiroketak leku handia hartzen du Aramaion. Garai baten Joko Olinpikoetan ere parte hartu izan du aramaior tiratzaile batek edo bestek (Seulen eta Bartzelonan, hain zuzen ere). Gaur egun, bada Kurtzeta-Gain izeneko talde bat. Aramaioko zaleak batzen ditu, 44 lagun. Horieta batekin izan gara berbetan, Enrike Ullibarriarana uribarriarrarekin. Kurtzeta-Gain taldearen sortzailetako bat, ehizan egitea gustuko du, baina gurago du tiroketa:

Ehiza eta plater tiroketa lotuta doaz?

Normalean denok ehizean hasten gara eta gero batzuk plater tiroketa pasatzen dira. **Antzinatek existitzen da plater tiroketa taldea?** Taldea bera, orain dela zortzi bat urte. Baina lehenagotik ere ehiza eta arrantza taldearekin batera ibiltzen ginen. Kontua da Arabako herrien arteko txapelketan parte hartu ahal izateko taldea sortzea komeni zela, eta halaxe egin genuen. Dena dela, esan beharra dago Aramaion aspalditik dagoela kirol horrekiko zaletasuna. Adibidez, ni ume nintzanean, Kurtzetan egiten zuten eta



"Beteranoak ere baditugu taldean; urrian, 78 urte beteko ditu batek, eta ondo dabil"

lehenago ere, argazkitan, ikusita ditud aita eta osabaren bat Errota Berrin plater tiroketan. Betidanik egon izan da zaletasuna, auzo guztietan, gainera.

Zergatik izango da hori?

Badakigu hemen ehiztari asko dagoela, baina halaber, geroago eta ehiza gutxiago dago, hortaz, zerbait egin behar, nik uste.

Taldean kide mordoza zarete, ezta? Geroago eta gehiago?

44. Bai, igo egin da. Hasieran, zortzi-hamar bat besterik ez ginen; baina Arabako herrien arteko txapelketan hasi ginetik geroago eta jende gehiago sartu zen taldean.

Noiz izaten da txapelketa hori?

Normalean apirilean hasten da, eta azkeneko bizpahiru urteotan 16 talde izan gara, hortaz, saiatzen gara talde bakoitzak tirada bat antolatzen. 16 tirada

izaten dira, normalean, zapatuetan. Aurten, berriz, zapatu bakoitzean bi tirada egin ditugu, horren luzea ez izateko. Horrela, ekainaren bukaeran amaitu genuen, eta, azken urteotan moduan, bigarren geratu ginen.

Horrez gain, beste zerbaitetan parte hartzen duzue?

Bai. Gure taldean hainbat maila daude (laugarrenetik lehenengora) eta mailaz igotzeko beharrezkoa da tirada ofizialak egitea. Eta, horrez gain, herriko auzo gehienetako jaietan tiradak egiten ditugu, sanjuanetan hasita, Azkoaga auzoan. Baina tirada horiek herritarrendako bakarrik izaten dira. Horrez gain, bihar, zapatua, ere probintzien arteko tirada egingo dugu gura duten guztiendako. Goiko kantxa egin genuenetik hona, urtero egiten dugu hori, irailean.

Norbaitek sartzea guraz gero...

Badaki bidea. Edozelan ere, entrenamenduak ere egiten ditugu eta bazkide guztiok dugu giltza. Etortzen diren gazteei ere saiatzen gara erakusten. **Etorkizuna...?**

Beste leku bat behar dugu praktikatzeko. Oraingoa ez da egokia, askotan eguraldi eskasa egiten du.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuzako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

BERRIRO ERE LEHENGORA

Oporren amaierarekin batera, herriko liburutegiak eta ludotekak atek ireki dituzte. Lehenengo aste honetan goizez egon dira zabalik, baina datorren astetik aurrera, eta umeak eskolan hasiko direnez, ohiko ordutegira itzuliko dira: ludoteka 16:15etik 19:15ak arte eta liburutegia 17:00etatik 19:30era arte.

ERRETRATU ZAHARRA

Aramaioko
paisaia
ederretan

Aramaioko Kurtzeta gainean 1958an ateratako argazkia da hau. Argazkian agertzen diren lau gizonak, ezkerretik hasita, R. Miranda, Jose Ignacio Velez de Mendizabal, haren lehengusu Raimundo Velez de Mendizabal eta Enrique Stegmeier dira. Argazkilaria dagokionez, Erich Michbronn alemaniarra izan zela aipatu.

Elkarrekin zebiltzan lanean lau lagunak, ELMAN, eta urtero-urtero egiten zuten moduan, urte hartako uztailaren 20an ere Jose Ignaciok Aramaion zeukan etxera joan ziren bazkaltzera. Gainera, lan kontuengatik Mondragoera etorri zen Erich Michbronn alemaniarra ere haiekin batera joan zen. Horrela, Aramaioko inguruneak ikusteko aukera izan zuen bisitariak.

Bazkaldu ondoren Kurtzetaraino abiatu ziren osteratxoa egitera bost lagun horiek, eta goizean egin zuen eguraldi paregabea aprobetxatu zuten Aramaio inguruak ikusteko.

Bestalde, argazkiko atzeko aldean ikusten dena Aramaioko Etxaguen



auzoa da, eta ohar daitekeen moduan, osteratxoa egiteko une egokia aukeratu zuten. Izan ere, zerua garbi zegoen, eta paisaiatz hobeto gozatzeko aukera eman zien horrek.

Argazkia eta berriemailea:

Josemari Velez de Mendizabal

Urtea:

1958. urtea

Oharra:

Argazki zaharren bat izan, eta hemen ikusi nahi izanez gero, etor zaitezte ARRASATE PRESSera, edo dei egiguzue eta gu joango gara haren bila.

NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

Biteri kalea
lasaiagoa
zenean

Arrasateko Biteri kaleko argazki zaharragoak ere erakutsi dizkizuegu.

Lehen, taxi-geltokia zegoen argazkiaren eskuinaldean, baina argazki hau atera zutenerako, horiek ere garai zaharrak ziren. Hemeretzi urtean gauzak dezente aldatu dira. Gaur egun, kalea zabala goa dela dirudi, baina ordukoa estuagoa bazen ere, lasaiagoa ere izango zen, seguru.



≈ 1983

Garai hartan, bankuek oraindik ez zeukaten gaur egun herriko kaleetan daukaten protagonismorik.



2002

Argazki zaharraren atzeko aldean Pablo Urago etxeak egin barik zeudela ikusten da, baina gainerako eraikinak ez dira aldatu.

INMO f3  **INMO f3**
inmobiliaria **SARE** inmobiliaria

Erdiko kalea 26.
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 79

- Etxebizitzen salerosketarako sare garrantzitsu bat gara.
- Gipuzkoan 14 zentro elkar lanean.
- Etor zaitez gu ezagutzera. Eskerrik asko.

Ireki berria Arrasaten!

Ikastetxeko irakasgaien

IKASTURTEA 2002-03

laguntza eskolak



- Matematika
- Hizkuntza
- Euskara
- Ingelesa ...

MATRIKULA EPEA ZABALIK

- ⇒ Maila eta adin guztiak, eta multimedia sistemak
- ⇒ Ordu-tegi malguak



Arrasate
Araba Hiribidea, 4.
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00



secretaria@cim-idiomas.com • <http://www.cim-idiomas.com>

Euskara "txinoa" bada zuretzat

...eta euskara zeurea egingo duzu.

Ni txinin, txirrin,
txirrinduila, dulai...



UDAL
EUSKALTEGIAK
...

Ni txirrinduan
nabil.



UDAL
EUSKALTEGIAK

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazuri plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

EUSKALDUNTZE maila
guztiak, ALFABETATZE eta
EGA.
Ikastaro bereziak:
merkataritza, sakontze,
Arrasateko euskara...

ERRITMOAK
2 ordu egunero (Erritmo bereziak ere baditugu)
BEKA SISTEMA DAUKAGU.
BULEGO ORDUTEGIA
10:00 - 13:00 eta 15:00 - 19:00
MATRIKULALDIA: Irailaren 2tik 20ra.

HABEREN dirulaguntzaz

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

